

eTwinning jokabide-kodea



eTwinning Europako ikastetxeen sarerik handiena da. Osatzen duten pertsona guzti-guztiek taxutzen dute. Hemen, eTwinning-ek guztiontzat segurua eta dibertigarria izaten jarrai dezan oinarritzko arau batzuk azalduko ditugu.

eTwinning zure trebetasunak garatzen, zure sare profesionala zabaltzen eta zure ikasleen gaitasunak hobetzen laguntzen dizun plataforma da. Horregatik, eTwinning-en espiritua errespetuan eta ulermenean oinarritzen da. Jarduerak, mezuak, argitalpenak eta eTwinning-en argitaratu nahi den oro honako printzipio hauei egokitu behar zaizkie:

- **Inklusioaren alde lan egin.** Mundu guztiaren iritziak eta ikuspuntuak ongietorriak dira eta baimenduak daude.
- **Ez iraindu eta ez mindu** eTwinning-en dagoen beste inor pertsona gisa..
- **Ez erasotu** ez bultzatu beste inoren aurkako indarkeriarik arraza, etnia, jatorri nazionala, erlijioa, sexu-orientazioa edo generoa direla-eta, ez herrialde, talde edo gutxiengo bateko kide izateagatik.

eTwinning-en gure esku dagoen guztia egiten dugu edozein pertsona nahi ez ditugun gehiegikerietatik eta mezuetatik babesteko, baina komunitate aktiboa eta plurala garen aldetik, zuekin gaude jarrera positiboa izateko eta nahi ez ditugun gertakariak murrizteko.

Jokabide-kode hori betetzen ez duen erabiltzaile orori kargu hartuko zaio, eta, zenbait kasutan, plataformatik kanporatuko dute.

Hortaz, egoki deritzozuen guztia salatzera animatzen zaituztegu.

eTwinning jokabide-kodea urratzen duten mespretxuzko eduki edo eduki desagokirik topatuz gero, jarri harremanetan Laguntza Nazionaleko Zerbitzuarekin.

Jarraian, sakatu esteka honetan [eTwinning jarrera-kodera](#) sartzeko.

Goiburuko irudiaren iturria: Pixabay